

Zuhotza  
euskaro elkarteak  
daba

# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 188. alea - 2014ko abuztua



**Barre eta algara artean  
Kolorez Blai udalekuetan**



# SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



**ASKETA, S.L.**  
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

**OFICINAS Y EXPOSICION:**  
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

**ALMACÉN:**  
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



KALITATEA  
Enpresa Registrada Nº 21051049  
NIVEL 2



**Haztik**  
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA  
tel.: 943 02 99 63  
e-mail: haztik@gmail.com

**Jarri zure publizitatea  
Berriketan aldizkarian!**

**Zuhatzia**

943 191 383  
berriketan@zuhatzia.com




**www.aukera-inmobiliaria.com**  
Aukerarik onena!

943 12 13 95




**AITTOLA**  
HARATEGIA

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

**URDAITEGIA**  
**AITTOLA**  
**HARATEGIA**

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

**LENTZERIA**

**Azoka**

**MERTZERIA**

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



**kutxa**



**kutxabank**

**RAIKETAK S.L.**

**SAGARMIÑA**

Hondartza, 3-4 behea - Apartado, 31  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel/Fax: 943 192 249  
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940  
sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com

**haizea**  
estetika

Tlf. 943 029 607  
Iturkale 22, 1 eskubia  
sarrera Zesterokua plazaatik

**ISABEL**  
**FRUTADENDA**

Sokagin Kalea, 2 behea - 20820 DEBA  
943 029 186

**JAZKUNE**  
FRUTA PRODUKUNTZA ETA KARBOTZEA  
1975etik zuekin!



**ARKATZA**  
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

**Calbeton**



**JATETXEA**

**L.A.**

**LARRAMENDI**  
**ANAIK, S.L.**

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

**s@soiko**

ekodenda,  
dietaetika,  
belardenda

**ZERBITZUAK:**

- \* Fisioterapia: telarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- \* Gimnasia hipopresioak
- \* Dietista
- \* Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasolko@hotmail.com

**Agustín**  
**Larrañaga Elorza**

**Denboraldiko platera**  
**arrain eta barazkitan**

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tlfnoa.: 943 021 959  
Mobila: 670 411 786  
Tel.-Fax: 943 191 782

**ARTZABAL AUZO**  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba  
Telefonoa: 943 19 13 83  
Aldizkariaren e-maila:  
[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)  
Elkartearen e-maila:  
[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

**Argitaratzailea:**  
Zuhatza Euskara Elkarte  
**Erredakzio taldea eta kolaboratzaileak:**  
Nagore Dorronsoro, Xabier Laka, Ina Oiartzabal, Koldo Aperribai, Lukax Dorronsoro, Izaro Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite Rodriguez, Gilen Garcia, Eider Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane Aizpurua, Haika Aizpurua, Nekane Goikoetxea, Mattin Urbietta, Mikel Aizpurua, Debako Gazte Asanblada, Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

**Koordinatzailea:**  
Izaro Aulestiarte  
**Azaleko irudia:**  
Erredakzio taldea

**Publizitatea:**  
Joseba Escudero eta Koldo Aperribai  
Tlfnoa.: 943 19 13 83

**Logotipoaren diseinua:**  
Iñaki Elosua

**Maketazioa:**  
Leire Rubio  
**Inprimategia:**  
Euskalinpri

**Tirada:**  
1.400 ale  
**Lege gordailua:**  
SS-246-2009  
**ISSN** 2171-7656

**OHARRA:**

*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

**ARGITARATZAILEA**



**LAGUNTZAILERAK**



# aurkibidea

05-06

Haika Aizpurua,  
"Negua joan da ta",

Debako Gazte Asanblada,  
"Martxa baten nota ahaztuak"

07

ALBISTEA

2014ko Euskal Jaia iragartzeko kartela aurkeztu da



12-13

LITERATURAZ

Zuhatzak eta Mendatak antolatutako literatur lehiaketako lan sarituak



14

KRONIKA

Ekimen ugari burutu ditu Gaztelekuak aurtengo udaran



16-17

SAN ROKEAK


Herriko jaietan murgiltzeko prest gaude dagoeneko!



Aritz Loiola

18

ZERBITZUAK



*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) edo [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com).

## “FÈNIX 11\*23”

Zineforum batean “Fènix 11\*23” ikusteko aukera izan dut. Guztiz gomendagarria, hizkuntz gutxituen alde egiten denak zenbat balio duen ohartzeko. Filmean mutil koskor katalan bati egiaz gertatua kontatzen da. Dendetako etiketatzea katalanez jartzeko eskatzea mutikoaren delitua. Familiaren sufri-mendua, ezin sinetsia. Hortaz Euskaldunon Egunkariak zerbait badaki. Hizkuntza terrorismoarekin lotzeko grina: frankismoaren garaia gogorarazten digu jendeak, debekuaren ondorioz, euskara galtzeak. Baina, aldaketa ordua heldu zen; pasa ginen “dibujos animados” etik marrazki bizidunetara, ikastola eta goiko eskola batzera, **BERRIKETAN** aldizkaria sortzera, euskara iragarkietan... ezina ekinez egina. Etorkezunean gaude. Beraz, mutil koskor honek ez du uler-

tzen zergatik esne kaxa bat hartu eta haren berri berea ez beste hainbat hizkuntzatan irakurri behar izatea. Baina Espainiaren barruan gaude txikito!, mugak beraiek jartzen dituzte! Nafarroan galdu dute euskal telebista (oraindik gogoan ditut aitak “Belfi & Lilibit” “dibujos animados” en kantzak euskaratu zizkigun garaia). Eta, kataplum! Lonce legea!!! Nola euskal ibaiak eta mendiak izendatu Nafarroarik gabe? Azterketak irakasle kanpotar erdaldunek zuzenduko dituzte. Izango ote dugu OLENTZERO Egunik Espainiak inposaturiko eskola egutegian? Eta, Euskararen Egunik? Ezin dugu atzera egin! Gauza txikietatik hasten da galera handia. Gure esku dago!

*Aitziber Dorronsoro*

## Berriketan aldizkariaren hurrengo alea, urrian!

Esku artean daukazuen aldizkariaren ale honekin agurtzen du Zuhatza Euskara Elkarateak ikasturtea. Abuztuko oporrak direla eta, irailean ez dela *Berriketan*-ik kaleratuko gogorara zi nahi dizuegu. Hurrengo alea urrian plazaratuko dugu. Ordura arte agurtzen zaituztegu, beraz!

Aldi berean, lerro hauen bitartez, herriko festetan

zein oporraldietan ondo pasatzea opa dizuegu. Eta, badakizue, irailetik aurrera izango dugu berriz ere elkarren berri, besteak beste, hitzordua jarrita baitugu Euskal Jaian. Ondo izan bitartean!

*Zuhatza Euskara Elkarate*

Seven Clovers  
Irish pub

Gozatu gure garagardoa  
Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



# HAIKA AIZPURUA

## NEGUA JOAN DA TA

*Negua joan da ta* berarekin batera itsaso txarrak, marea biziak eta baita horrek guztiak sortutako hondamendiak ere. Ura izan da herrian ate-joka eta orain ura da herri honetako ate askoren jokoa. Nahiz eta berandu izan askoren gusturako, eguzkiak erakutsi digu aurpegia; pasatako guztia ahazten laguntzen diguna da, baina kontuz, beste marea handi bat datorkigu: jendetza.

Beltzak nahiz zuriak, neskak nahiz gizonak, gazteak nahiz helduak, ederrak nahiz itsusiak, euskaldunak nahiz erdaldunak, debarrak nahiz kanpotarrak... Denok dugu toki bat Deban, gure herrian.

Askorentzat ezerosoa dena beste batzuentzat eroso da. Debar askoren aukera da, lana egiteko orduan. Beste batzuek jende berria ezagutuko dute. Izango da ere, urte osoan zehar bezala, bere kasa ibiliko denik. Musika maite duenak kontzertuak izan ditu eta izango ditu disfrutatzen, zezenezaleek beren entzierro eta zezenketak izango dituzte. Eguzkia gustuko duenak bertan dauka hondartza. Haurrek ere izango dituzte euren barrakak eta parkeak, mendizaleek mendiak; zumardia paseatzeko eta itsasoa arrantzarako. Denetarik daukagu bertan eta askotan ez dugu preziatzen. Ingurukoari begira pasatzen dugu gure bizitzako denbora tarte handi bat eta konturatu orduko urteak pasa zaizkigu ezer egin gabe. Aprobetxatu egunak eta gauak, egin



dezagun bakoitzak gustuko dena baina betiere, ez ahaztu, ingurukoak errespetatu eta ahal den neurrian lagundu, ingurukoek ere disfruta dezaten.

Herri askotako jaiak pasatu dira dagoeneko eta behin eta berriz entzun dugu nahi ez duguna, ERASO SEXISTAK. Aurten Iruñeko Sanferminetan 5 izan dira jarritako salaketak, Arrasateko San Juanetan ere izan zen beste bat... Gurean ere izan zen Santiago bideko neska baten

kasua. Inoren gustukoa ez den ekintza hau ez dezagun gure herrian berriz gerta dadin laga. Gure adiskide, familiarteko, bizilagun, ezagun nahiz ezezagun bat izan daiteke hurrengo. Jar dezala bakoitzak ahalik eta oztopo gehien. Ez ezer egin gogoz kontra eta ez inori gogoz kontra ezer eragin. Ez atzera begiratu eta lagundu arriskuan ikusten duzun horri, gaur bera da eta hurrengoan zu izan zaitezke.

Egin dezagun guztion artean uda alai bat, San Roke jai ahaztezin batzuk eta aldarrika dezagun gure herria, Deba, ondo dakigun bezala. Gozatu dezagun denok eta egin ahalegin bat gure ingurukoek ere goza dezaten. Ahaztu ditzagun gure ingurukoekiko diferentziak; adina, sexua, jatorria, politika... Azken finean, denak gara berdinak.

*Negua joan da ta* berriz itzuliko da. Eta itzul daitezela berriz gugana gure artean izan diren guztiak.

Gora Deba eta Gora San Roke!!!



Debako Gazte Asanblada

## MARTXA BATEN NOTA AHAZTUAK

Denbora batez ahazturik izan ondoren, berriz ere Palestina modan jarri zaigu. Bertako sarraskia munduko lau haizeetara zabaldu da azken egunetan (bonbardaketak, hildakoak, errefuxiatuak, kaosa...) nahiz eta hau ezkututzen eta Israelgo estatuaren tragediaren irudia erakusten saiatzen diren une oro mendebaldeko herrialdeak eta haien bozera-maile ez ofizial diren "mass media"-ko multinazionalak. Baina palestinarren tragedia ezaguna izateak ez digu munduan ahaztutako herrien tragedia konpontzen laguntzen, beti kasu berberetara mugatzen baikara. Plano honetatik ateratzea gustatuko litzaidake orrialde xume honekin, pare bat adibide aipatuta.

Kongoko gerra, Afrikako Gerra Handia ere deitua izan dena, askotan erabili dut aurrekoaren adibide modura. 6 milioi hildakotik gora (iturri ez ofizial baina fidagarri askoren zenbakia da), milioika errefuxiatu, bortxaketa masiboak, desagertuak, torturatuak, ehunka "Secuestro Express" deiturikoak, haur soldaduen erreklutamenduak... egunero gertatzen dira. Giza Eskubideen defentsan aritzen den hainbeste pertsonak nola ez du egoera hau ozenki salatu? Gerraren beste adierak ederki azal dezake hau. Koltanaren Gerra. Koltana ugaria da oiha-naren barrenean, eta multinazionalen interesak beraren lapurreta eta espolioa dira, noski. Koltan deituriko mineral hau ezinbestekoa da teknologiarako, eta Kongon aurkitzen da munduko koltanaren %80. Herrialde desagertu eta suntsitu bat baino hoberik ba al dago lapurretarako? Eta gainera ahazturik badago? Arnoko tontor bat Kongo izenez bataiatu zuten nire aitona eta bere auzokideek, urrun eta abandonaturik aurkitzen baitzen. Metafora interesgarria, oso. Tebistan agertu gabe jarraituko du, ordea, honek, eta guk, beste alde batera begiratzen. Agian Arnora, Debatik bikain ikusten baita Kongo.

Kieveko protestekin hasi genuen urtea tebibista guztietako albistegietan. Europar Batasunean sartu nahi zuen Ukraina mendebaldeko jende multzo batek protesta ugari abiarazi zituen Yanukovitxen gobernuaren aurka. Protesta hau Estatu Batuek eta mendebaldeko herrialde aberatsenek aukera gisa ikusi zuten euren beste kolonia bat (Europa hegoaldeko herrialdeetan bezalaxe) ezarri ahal izateko. Estatu kolpe baten ondoren, Krimeako herritarrak Errusiara pasatu ziren, golpismotik ihesi eta aitortza nazio-

nalaren eskaerarekin. Zein izan da bi kasuen arteko erreakzioen arteko aldea? Interes geostrategikoak. Horregatik, lehenbizikoa goraiatzen den bitartean, bigarrena kondentatu egiten dugu (mendebaldearen parte gara). Eta zer esanik ez Donetskeko Herri Errepublikaren mugimenduekin. Euren herri eskubide eta, batez ere, eskubide sozialen aldeko mugimendu hau bonbardaketen, ilegalizazioen, sindikatuen aurkako ekintza paramilitarren... bidez erreprimitzen ari den bitartean Ukrainako gobernu berria (EB eta AEBren aliatua, noski), herrialde "demokratikoa", burua beste alde batera biratu eta isilik geratzea beste ezer ez dugu egiten, Donetskeko langileria eta herri xumea genozidioz guztiz zapaldu arte ari denean Poroshenkoren gobernu "demokratikoa".

Aipatu ditudan bi kasuak ez dira bakarrak, noski.



Ahaztutako gerra gisa geratu diren bi adibide baino ez dira. Mundu guztian zehar aurki ditzakegu euren eskubide nazionalen eta sozialen alde borrokan diharduten herriak. Hauek azalertzeko eta gure kontzientzia astintzeko asmoz, jada badira bi urte Debako Gazte Asanbladak eta Komite Internazionalistek, Uztailaren 26aren aitzakitan (iraultza Kubatarraren hasiera), Aste Internazionalista antolatzen dugula.

Aurten, herrialde arabiarretako feminismoa, Kurdistango egoera politikoa, munduan eman diren bake prozesuak... bezalako gai ezberdin eta anitzak azalerratu ditugu. Aurreko bi aipamenak sekula eztabaidatu gabeak izan dira. Agian, hurrengo urtean eztabaidatuko ditugu, ala agian ez. Sobera herri ditugu zapaldurik gure begien aurrean. Gurea ez da zapaldua den herri bakarra. Zapalkuntzari aurre egin nahi badiogu, elkar ezagutu beharra dugu. Horretarako, daukagun tresna bikain hau erabiltzera gonbidatzen zaituztegu. Artzeren poema ezagun batek zioenaren (Laboak abestua) aipu batez bukatuko dut idatzi hau. "Inor ez inon menpekorian, nor bere buruan jabe; herri guztiok bat eginikan, ez gabiltz gerorik gabe!". Aste Internazionalista itzuliko da hurrengo urtean ere, baina gogoratu, egunero izan behar dela Uztailaren 26! Munduaren, herri guzti hauen, gure edota norberaren etorkizunaren izenean, ANIMATU ETA PARTE HARTU!!!

Lander Aranberri

## 2014ko Euskal Jaia iragartzeko kartela aurkeztu da



Aurtengo kartelaren aurkezpen agerraldia. Aurreko planoan (ezkerrean) ikus dezakezue 2014ko iraileko Euskal Jaia iragarriko duen kartela. Atzeoak, berriz, azken 16 urteotan erabili diren kartelak dira –Zuhatzak antolatutako kartel lehiaketetan aukeratutakoak, alegia–.)

Berezia izango da aurtengo Euskal Jaia. Irailaren 27an ospatuko da hitzordua; baina, dagoeneko abiatu dira prestaketa lanak.

Aurtengo Euskal Jaia aro berriko XVII.a izango da. Nolanahi ere, ezin dugu ahaztu aurretik beste batzuk antolatu zirela Oargui taldearen eskutik; eta errepresio garai zail haietan euskararen eta euskal kulturaren aldeko hamaika lan egin zela.

Deban lehenengo Euskal Jaia ospatu zenetik 50 urte bete dira aurten. 1964ko maiatzean Oarguik antolatu zuen jaia, eta 65ean errepikatu egin zen festa. 1966koa, ordea, debekatu egin zuten.

Orduko ospakizunak gogoan hartuta, aurten ere herrialde

ezberdinetako dantza taldeen bisita izango dugu Deban. Aurreikuspenen arabera, hogeitabat talde gonbidatu izango dira Euskal Jaian. Eta urteroko bazkari herrikoia, marmitako lehiaketa eta erromeria egiteko asmoa ere badago. Egitarau osoa zehazteko dagoen arren, jaia iragarriko duen kartela aurkeztu da dagoeneko. Hasierako Euskal Jai haietarako J. Landak egindako kartela oinarri hartuta sortu da, hain juxtu, aurtengoa. Hori dela eta, aurten ez du kartel lehiaketarik antolatu Zuhatzak Euskara Elkarteak.

Iraileko ospakizun berezia aurrera ateratzeko lan handia egin beharko da; adi, beraz, jai hau antolatzeko burutuko diren deialdiei. Garrantzitsua izango da guztion parte-hartzea.

**Euskaraz  
blai**

**Empápate  
de  
Euskera**

**ONDO  
PASATU  
SAN ROKE  
JAIK**

**2014-2015 ikasturtea**  
MATRIKULA ZABALIK IRAILAREN 1etik 27ra

**UDAL  
EUSKALTEGIAK**  
euskara klaseak • clases de euskera

**14-15**

**IKASTURTEACURSO**  
matrikula zabalik  
matriculada abierta

**DEBABE UDAL EUSKALEGIA**  
Ifar kalea, 12  
Telefonoa: 943 19 22 36  
e-posta: [debabe@telefonica.net](mailto:debabe@telefonica.net)



## Kolorez Blai Udalekuak

*"Bukatu da, bukatu da, bukatu da, akabo..."*

Eguraldiak ez zigun askorik lagundu hasieran, baina lortu dugu! Koloreak dantzan jarri ditugu uztail guztian zehar, Deban zein Itziarren! Haurren irrietan, kalekoen txaloetan eta guztion bihotzetan islaturik gelditzen da aurtengo udalekuen emaitza bikaina!!!! Aurten ere guztia primeran atera da eta oso pozik gaude!

Eskerrak eman nahi dizkizuegu, gure koloretako ametsa bizirik mantentzen duzuen guztioi eta, nola ez, gugan konfiantza jartzen duzuenoi ere bai. "Kolore artean mugituz, eskuak gora altxatuz, herri guztiari erakutsiz euskaraz egiten dugula hitz. Denok dantzatzu, elkar maitatuz, koloreak batuz, Kolore Anitz, GORA KOLORE ANITZ!!!!!!".

Ondo pasa porrak eta hurren arte! Mila esker!!

*Zuhatza Euskara Elkarteko Kolore Anitz Aisialdi Taldea*










*Argazkia Roberto izeneko gizon batek atera zuen eta bertan ageri diren pertsonak identifikatzeko lana Jose Luis Albizuk egin du, beste hainbat lagunen kolaborazioarekin. Ander Salegiren laguntza izan du argazkiaren kalitatea hobetzeko orduan.*

**DEBA: 1983ko apirilaren 30ean, Zaharren Biltokia egoitzaren inaugurazioa. Zaharren Biltokia (Hogar de jubilados) izenarekin ezagutzen zen egoitza eta "Arbil" Jubilatu Elkarte deritzogu gaur egun.**

- |                                |                             |                             |
|--------------------------------|-----------------------------|-----------------------------|
| 1- José Mari Aperribai         | "Txarturi"                  | 41- Teodora Lamariano       |
| 2- José Mari Rivero            | 21- Juan Rodriguez          | 42-                         |
| 3- José Mari Muguruza          | 22- Fermin Aramberri        | 43- María Orbegozo          |
| 4- Manuel Txurruka "Betetxe"   | 23- Salvador Aranguren      | 44- María Unanue            |
| 5- Juan Etxeberria "Ataun"     | 24- Felisa Sorazu           | 45- Eugenia Alberdi         |
| 6- Ignacio Zubiaurre "Leiarde" | 25- Eusebio Gil             | 46- Victoria Ayuso          |
| 7-                             | 26-                         | 47- José Mari Eizaguirre    |
| 8- Luis Idiakez "Txarturi"     | 27- Rufino Balenciaga       | 48- Juanita Agirre          |
| 9- Paco Lazkano                | 28- José Joaquín Sorazu     | 49- Emeteri Zumárraga       |
| 10- Angel Azpeitia             | 29- Félix Iranzu            | 50- Román Galarraga         |
| 11- José Sagarna               | 30- Basili Etxaniz          | 51- Nicolás Ostolaza "Gich" |
| 12- José Mari Egaña            | 31- María Subinas           | 52- Luisa Aldazabal         |
| "Urasandi"                     | 32- Francisca Odriozola     | 53- José Luis Zubizarreta   |
| 13- Angel Urkiri "Lasao Txiki" | 33- Francisco Aramberri     | 54- Karmen Alcibar          |
| 14- Antonio Alkorta            | 34- Emilia Rodriguez        | 55- Timotea Txopitea        |
| 15- Juan Aizpitarte            | 35- Cándida Aznar           | 56- Josefa Subinas          |
| 16-                            | 36- Concha Iradi            | 57- María Aizpitarte        |
| 17- Juan Egurbide              | 37- Juana Elordi            | 58- Miren Txakartegi        |
| 18- Luis Urcelai               | 38- Julio Urkaregi          | 59- María Ansola            |
| 19- Juan Urkiri                | 39- Pilar Valledor          | 60-                         |
| 20- Antonio Arrizabalaga       | 40- Flora Salegui "Loretxu" | 61- Esperanza Azpiazu       |



- |                             |                            |                             |
|-----------------------------|----------------------------|-----------------------------|
| 62- María Larrañaga         | 78- Ramón Beitia           | 92- Mateo Iriando "Ansola"  |
| 63- Rafael Rodríguez        | 79- Dativo Pérez           | 93-                         |
| 64- Mari Conchi Egaña       | 80- Jose Mari Egaña        | 94-                         |
| 65- Marcelino Egaña         | "Txapasta"                 | 95- Josepa Andoni Egaña     |
| "Korriokua"                 | 81- Lorenzo Arriola        | 96- Francisca Egaña         |
| 66- Manuel Enparanza        | 82- Serapia Bereciartua    | 97- Josepa Alberdi "Ostatu" |
| 67- Pedro Careaga           | 83- José Miguel Etxeberria | 98-                         |
| 68- Josefa Aguirrezabala    | "Casacampo"                | 99- Julián Etxeberri        |
| 69- José Ansola             | 84- Eugenia Mendiola       | 100- Teófila Mugabure       |
| 70- Nicomedes Urkiri        | 85- Ludovina Curiel        | 101- Fermina Lekuona        |
| 71- Javier Egaña            | 86- Amparo Calleja         | 102- María Bilbao           |
| 72- Manuel Salegi           | 87- Ramón Iriando          | 103- Ramona Zubizarreta     |
| 73- Francisco Aldabaldetrek | 88- Gregorio Osa           | 104- Brígida Bilbao         |
| 74-                         | 89- José Mari Aizpurua     | 105- Asensio Aperribai      |
| 75- Catalina Beitia         | 90- Luis Esnaola           | 106- Justo Basurto          |
| 76- Julián Alcibar          | "Esteia/Esteixa"           |                             |
| 77- Fermín Ansola "Sasiola" | 91- Bonifacio Kilimón      |                             |

# LITERATUR LANAK 2014

“Altxorrik preziatuena” izan da aurten Mendata institutuak eta Zuhatza Euskara Elkarteak antolatutako literatur lehiaketako gaia. Epaimahaiak saritutako lan batzuk bi orrialde hauetan bildu ditu *Berriketan* aldizkariak, zuek guztiok ere irakurtzeko aukera izan dezazuen.

## Uda heldu da,

Eta zu etorri zara  
Nire usaimenaren harira.  
Desiatzen nago zu  
usaindu, sentitu, dastatzeko.  
Beroa dudanean  
zu gertu behar zaitut.  
Zu ez bazintut,  
urtu egingo nintzake  
zu nire dhoan  
urtzen zaren bezala.  
Elkarren alboan egonda  
azkarrago igarotzen zait denbora,  
nirekin bazaitut  
ez dut gehiagorik behar.  
Hiru hilabete hauetan  
nire alboan egon zara,  
ez didazu bizkarra eman.  
Baina alde egin duzu  
negu hotza iristearekin batera.  
Izozkia, etor zaitez mesedez,  
une horiek nahi ditut errepika.

**ANE AGIRREGABIRIA (1. zikloa)**

**Egunon, lagun!** Hementxe elkartu gara berriz ere, orri zuria, boligrafoa eta ni. Beste egun bat lau hormen artean, armiarma sare eta argirik gabeko gela ilun honetan. Urte asko dira gela honetan argi izpirik sartzen ez dela, bizia galtzen doa gela txiki hau, nirekin batera. Urteak dira zelaiaren erdian etzan eta zeruko lainoen irudiak asmatzen ibiltzen ez naizela, urteak dira itsasoari begira jarri eta besoak luzatzen ez ditudala, urteak dira gaueko izarren distirarik ikusten ez dudala, urteak dira burdinazko hesi lodiei gogor heldu eta noiz zeharkatuko ditudan imajinatzen dudala.

Munduan badago gehien miresten dudan altxor preziatu bat eta urte asko pasa dira lapurtu zidatenetik. Askotan balio handiko gauzak ez ditugu preziatzen galdu edota lapurtzen dizkiguten arte. Eta ohar-tzen garenerako berandu da, ihes egin du edota kendu digute. Bizitza segundu bat da, orain hemen gaude, eta bihar agian ez.

Orain ez zara jabetuko nor den altxorrik preziatuena, ez diozu agian jaramonik egingo, lapurtzen dizuten eguna iritsi arte. Beraz, eskue-tatik gogor heldu bizitzari eta ez utzi ihes egiten. Besoak beraiek bakarrik askatuko dira, inork ez ditu askatu edo ukitu behar, zeu zara zure bizitzari eusten dioten besoen jabe.

Badago altxor preziatu bat oso pertsona gutxi preziatzen dutena, inoiz garrantzirik eman ez diogun altxor bat. Altxor hori ez da urez betetako kutxa bat, ezta ere munduko autorik garestiena, ezta ere txalet eder bat igerileku erraldoi batekin. Altxor hau ezin da ukitu, ezin da erosi.

Bitartean, nik hemen jarraitzen dut egunak joan egunak etorri. Egunero horma zahar eta apurtu honetan marratxo bat eginez, horma madarikatu hau guztiz apurtuko den eguna noiz iritsiko den zain. Gauak hotzak dira, zu ez bazaude, goizak argi izpirik gabekoak dira zu ez bazaude, arratsaldeak bukatu ziren, zure ondotik joan nintzenetik. Nire harrizko eta izara gabeko ohearen gainean etzan eta zutaz gogoratzen naiz; zuhaitzez eta animaliaz betetako mendiak, putzu urdin amaigabea, maldaz jositako kaleak, kresal usain goxoa...

Lo hartu aurretik beti galdera berdinak egiten dizkiot nire buruari: Noiz zapalduko ditut nire zelai berde eta hezeak? Noiz oihukatuko dut gure putzu urdin eta amaigabera besoak zabalduz? Noiz igoko ditut kaleetako malda luzeak?... Erantzuna, berriz, gero eta ilunagoa da, hesi lodiak gero eta gogorragoak ari dira egiten ni ahultzearekin batera.

Ni injustiziaz eta madarikazioz betetako bizitzatik aspaldi bota ninduten, nik ez nuen nire lurretatik joan nahi; nire familia, mendiak, itsasoa... dena atzean uztea tokatu zitzaidan; nire bizitzaren programan ez zuen tokirik horrek; baina, askotan, gustukoak ez ditugun gauzek oztopatzen digute bidea. Niri oztopatu ez, niri bidez aldatzea eragin zidaten. Bidearen alde batean nire lagunak, itsasoa, familia zeuden, eta bestean, berriz, bakardadea, lau hormen arteko infernu beltza; baina, infernu honek ez du aterik, ezta berotuko nauen surik ere, hasieran zeuden armiarmek ere aspaldi egin zuten ihes.

Nire bizitzaren azken uneak dira hauek, nire bihotzaren azken taupadak. Nire buruak lurra jo du, ez nik nahiko nukeen lurra, porlanezko lur gogor bat baizik. Inork jasoko ez duen agur bat... “Egarri nintzen eta zure ahoak asetu ninduen. Ordudanik zure egarriz bizi naiz. Maite zaitut”.

**BEÑAT ESCUDERO (1. zikloa)**



**Han zegoen, beti bezain eder.** Bere begi berdeek betiko distira xarmant eta berezi hura zeramaten egun hartan ere, eta, nola ez ahaztu, bere ezti koloreko ile luzeak, amaigabea zirudien zurrumbilo ekaitza sortu zuen haizeak zeraman konpasaren arabera. Egun hartan ere, argiz eginiko igandetako soineko polit hura zeraman, bere burutxo ederrera egokitutako kapela eder batekin batera, eta, egun hartan ere, ez zen nire presentziaz ohartu.

Normala, egia esan. Bera ez zen ni bezalakoa. Bera, garai hartan inoiz ezagutu gabeko familia aberatseneko alaba zen, jantzi ederrak zituen eta norbaitek eska zezakeen guztia lortu zezakeen. Ni, ordea, familia umileko gizajoa, trapu zaharrez jantzia eta jateko apenasekin. Ez zen, ez, harritzekoa berak ni ez ezagutu izana. Nik, aldiz, ongi asko ezagutzen nuen. Igandero ikusten nuen bere familiarekin baso ondoan zegoen zelai hartan piknik txiki bat egiten, o, hain eder zegoen lehen aldiz ikusi nuenean... Urteak igaro ziren jada harrezkeroztik, baina gogoan nuen oraindik: Ni, 6 urteko ume koxkorra, nola nire aitarekin batera egur bila joan nintzen baso hartara, nola jolasean hari nintzela handik aurrera astero bisitatuko nuen zuhaitz sendo hartara igo nintzen, eta nola, berdez tindaturiko itsaso hartan, sirenatxo bat ikusi nuen, elurra baino zuriagoa zen soineko batez jantzirik. Ez dakit sorginkeria baten biktima izan ote nintzen edo ez; baina, harrezkeroztik, igandero-igandero bueltatzen nintzen, neure sirenatxo berriro ikusteko esperantza osoz, eta han ikusten nuen beti, irribarre gozo bat aurpegian marrazturik. Behin baino gehiagotan pentsatu izan nuen harengana hurbiltzea; baina, "Ez izan leloa", esaten nuen nire baitan, "bera zure aukeretatik urrun dago. Gainera, haren familiak, zu ikusi orduko botako zaitu eta ez duzu gehiago berriz ikusiko". Hura pentsatze soilak nire buruaz beste egiteko gogoa ematen zidan. Eta horrela jarraitu nuen, egunak joan egunak etorri, neure ezkulturekutik begira, egunak joan egunak etorri, neskatila harekin ametsetan.

Behinola, bera eta bere familia joanak zirela, nire txokotik zelaiaren koloreari ez zegokion gauza bat ikusi nuen botata. Zuhaitzetik ziztu bizian jaitsi eta hurbildu nintzenean, zetazko zapi delikatu bezain fin bat aurkitu nuen. Ezin sinetsirik nengoen, berea zen! Ikusia nuen jada harekin behin baino gehiagotan; baina, ez nuen imajinatu nire eskuetan inoiz egongo zenik! Hain nengoen zoriontsu... Zapiak xaboi eta lavanda usaina zuen, aingeru usaina nire ustetan. Zapia eskumuturrean lotu eta neskari hura itzuli arte inoiz ez kentzeko zina egin nuen, eta ongi bete ere.

Denbora askoan ez nuen neskatila gehiago ikusi. Zirudienez, bera eta haren familia guztia Madril aldera joan ziren bizitzera, nigandik oso uruti. Asteak egon nintzen itxaroten, beti zuhaitz berera igota, zuhaitzen artean, ninfa baten moduan, nire ametsetako erregina agertuko zenaren itxaropenarekin, bere soineko txuri politarekin, bere irribarre gozoarekin. Ametsak beti amets. Neguko gau luzeetan, neskatilaren zapia nirekin izaten nuen beti. Haren usainak behin maitatu izandako pertsonaren irudia ekartzen zidan gogora, hilabeteak igaro ahala gero eta lausoagoa zena, baina, oraindik, indar handiz irauten zuena.

Hilabeteak urte bilakatzen joan ziren heinean, hazten joan nintzen. Aitari bere arotz lanetan laguntzen nion eta harengandik gauza asko ikasten hasi nintzen. Amak beti esaten zidan: "Baina seme, ekar ezazu, bada, eskumuturrean daramazun trapu hori, garbitu beharko da eta." Baina nik beti ezetz eta ezetz, ez nuela kendu nahi eta amak baietz eta baietz, baina, azkenean ni beti garaile.

Bost urte beranduago, neskatila oraindik itzuli gabe zegoen. Igandero bezala, neure zuhaitzera joan nintzen, astero bezala itxarotera, oraindik itxaropen apur batekin bihotzean. Zuhaitzera igo eta neure pentsamenduetan murgildu nintzen, ez lehenengo aldiz, eta, oharkabean, neska gazte bat ikusi nuen zelaian eserita, soineko zuri bat jantzirik. Ezin sinetsirik nengoen, bera zen! Hainbeste denbora eta gero bera zen! Jadanik ez zen gogoan nuen neskatila, orain neska gazte eder bat zen. Orduan, konturatu gabe, eskua eskumuturreantz eraman nuen. Bazen garaia neskari berea zena itzultzeko. Urte askoan neure txokoa izandakotik jaitsi, eta zelairantz abiatu nintzen. Hantxe zegoen, nire aurrean geldi-geldirik zeru urdinera begira... orduan jiratu egin zen eta begiratu ninduen. Arraroa izan zen hura, ez baininduen ezezagun baten modura begiratu, aspaldiko ezagun baten modura baizik.

-Zurea den gauza bat dut- eta zapia erakutsi nion.

Hark irribarre gozo bat eskaini, zapia hartu eta neure eskura bueltatu zuen, gero hau itxiz, zapia barruan geratzeko moduan. Masailean muxu bat eman, eta joan egin zen.

Inoiz ez nituen ahaztuko bere irribarre eta begirada, inoiz ez bere usaina eta inoiz ez bere muxua, baina, batez ere, inoiz ez nuen galduko berak umetan nahita utziriko eta orain arte beti nirekin eraman dudana zapi txuri polit hura. Nire altxorra.

**MALEN EGAÑA (2. zikloa)**

**Gutxi jakin izan dute** zein den altxorrik preziatuena, non egongo da ezkutaturik bakoitzarena? Istorio honetan azaltzen da adibide onena.

Bi maitek zaila izaten zuten elkarrekin egoteko, gurasoek debekatu zuten ez baitzuten gustuko, ondorioz ez zuten modurik elkar ezagutzeko.

Baina okurritu zitzaion gutunak bidaltzea, maiteak gutuna irakurtzean inoiz ez aspertzea, hitzen ahalmenaz baliatuz elkar ezagutzea.

"Nahiz ta ez ikusi zure begi, zure ile horia, nahiz ta ez ikusi zure ezpain eta zure irria, beti izango zara zu maite nire bihotz erdia".

**JULEN MONASTERIO (2. zikloa)**



## Gaztelekuko uda, ekintzaz bete-betea aurten ere!

Uda honetan 12-16 urte bitarteko gaztetxoekin egindako ekimenen zerrenda luzea da oso, baina hitz gutxitan eta irudien bitartez hemen bildu nahi izan dugu egindakoaren kronikatxoa.

Ekainean, Kuadrillategiko 14 urteko 46 gaztek haurrentzako ur jolasak antolatu zituzten hondartzan. San Juan gaueko akelarrean Goaz Antzerki Taldearekin irteteko gazte boluntarioak bildu genituen eta hilabete bukaeran Murillo de Gallegora joan ginen 15 urteko gazteekin; urtebete lanean jardun ostean, rafting eta hidrospeed egitera joan ginen.

Uztailaren hasieran 16 urtekoekin Sakonetara joatekoak ginen, campingean, baina eguraldi kaskarra zela eta, irteera bertan behera utzi behar izan genuen eta iraillean burutuko dugu. Zorte hobea izan genuen Arcachonera egindako bidaian, eguraldia lagun 14-15 urteko 50 bat gazterekin gustura asko ibili baikinen ur parkean.

Deban bertan, hilabeteko lehenbiziko larunbatean Merkatu Txikia ospatzen zela eta, 14 urteko gazte batzuekin eta

baserritarrekin batera "ardi latxaren" inguruko tailerra burutu genuen herriko haur eta familientzat. Besteak beste, aurten Donosti Cup-en ere egon ginen, lan eta lan ibili diren 16 urtekoekin futbol txapelketa jokatu. Eta hiriburuan bertan, Santa Klara uhartea bisitatzeko aukera ere izan genuen beste egun batean, 12 urteko gazte kuadrillekin.

Zarautz, Getaria eta Debako hezitzaileok elkarlanean, herrien arteko Volley Txapelketa ere antolatu dugu aurten. Eta, nobebate bezala, Gaztekonkisa ere izan dugu lehenengo aldiz; telebistako reality-a gazteentzako moldatu dugu. Casting-ean 12-16 urte bitarteko 40 gaztek parte hartu dute eta hautatuekin, aventura, froga eta emozioz betetako egunak pasa ditugu. Bukatzeko, uztaileko azken txanpan, Nafarroako paradisu txukun bat ere bisitatu genuen hiru egunez: Aritzalekun gustura asko ibili ginen Gaztelekuan urtean zehar lanean buru-belarri eta gogotsu aritu diren 16 urteko gazteekin.

*Gaztelekuko hezitzaileak*



## Udalak Bide Publikoen Inbentarioaren bigarren faseari ekingo dio

Debako Bide Publikoen Inbentarioaren lehenengo fasea amaitu da berriki, bide pabimentatuen inbentarioa, hain zuzen ere. Eta, orain, Debako Udalak bigarren faseari ekingo dio, pabimentatu gabeko bideak (burdibideak...), ondare publikokoak, zeintzuk diren zehazteko.

Lan hori, SENDO S.L. ingeniari enpresa adituak burutuko du hurrengo 12 hilabeteetan, ikerketan metodo historiko-geografikoa erabiliz eta herri edo bizilagunen partaide-

tzarekin. "Herri honek eta landa auzoek historian zehar izan duten funtsezko bide-sarea berreskuratzea da helburua, bai kultur ondare gisa eta, baita, egungo bide-sare modura ere, aisialdirako zein elkar komunikatzeko erabilia izan dadin", nabarmendu du Udalak. Bada, bide-sarea zehazten joateko, bi bilera ireki burutu dira dagoeneko (Deban eta Itziarren) eta, bertan, aurrera begira jarraituko den metodologia eta emango diren urratsak azaldu dituzte herritarren aurrean.

## Brontzezko domina eskuratu du Amagoia Arrietak Bocciako Espainiako Kluben Arteko Txapelketan

Ekainaren 27, 28 eta 29an Kluben arteko Bocciako Estatu mailako txapelketa ospatu zen Benidormen. Bertan izan zen Amagoia Arrieta, Dordoka kirol elkarteako kirolaria, eta hirugarren postua lortu zuen BC2 kategorian. Bikain aritu zen fase guztietako partidetan eta brontzezko domina-rekin itzuli zen etxera. Zorionak!!

Amagoiak berak *Berriketan* aldizkariari kontatu dionez, hamabost urte daramatza boccian jokatzeko. Taldekako lehian ere aritu zen Benidormeko txapelketan. Dordoka 1 taldeko kide da debarra, Miguel Angel Gomez eta Mario Rodriguezekin batera. Bada, bosgarren postuan sailkatu zen beren taldea.

Dordoka (Aspace) kirol elkarteak hainbat jokalarik eta talde ditu gaur egun boccia egiten. Olinpiada Bereziaren sarturik dagoen kirola da boccia, petankaren antzekoa, gorputz adarretan erabateko urritasuna edo urritasun partziala duten kirolarientzat sortua. Garun paralisia duten pertsonak praktikatzen dute gaur egun.



## 150 bat parte-hartzaile II. Lasturko Mendi Lasterketan

Uztailaren 19an jokatu zen Lasturko mendi lasterketaren bigarren edizioa, Deba-Itziar Xtreme Kirol Taldeak antolatuta. Parte-hartze handia izan zuen probak, eta 146 kirolarik lortu zuten ibilbidea amaitzea (iazko kopurua bikoiztuz, gutxi gorabehera).

Hamabi kilometroko ibilbidea egin behar izan zuten korrikalariak eta Imanol Larrañaga azkoitiarra izan zen azkarrena gizonezkoetan (1:04:02). Emakumezkoen artean, berriz, Aiako Nerea Amilibia nagusitu zen (1:18:48).

Sailkapen orokorrean bigarren postua Igon Mancisidor debarrak lortu zuen (1:04:36) eta Jon Alberdi zestoarra gelditu zen hirugarren (1:05:34).

Fin aritu ziren, besteak beste, Arkaitz Astiazaran lasturtarra eta Josu Izagirre itziartarra ere (10. eta 12. postuan sailkatu ziren, hurrenez hurren).



## Gonzalo Etxebarriaren margoak, Elizako klaustroan

Santa Maria Elizako klaustroan udako erakusketa ikusteko aukera dago, abuztuaren 27ra arte.

Etenik gabe, udako erakusketa antolatzen den hamargarren urtea dugu oraingoa eta Gonzalo Etxebarria (Bilbo, 1954) artistaren lanak dira protagonista. Azken hogeita hamar bat urteetan, Etxebarriak Zuberoan garatu du bere pintura-lana. Formatu eta tamaina ezberdineko 35 bat lan aurkezten ditu orain Deban.



## Antzinako lanbideei buruzko liburu berria kaleratu du Carmelo Urdangarinek

“Antzinako Lanbideak” liburu-sortako 13. alea aurkeztu zuen Carmelo Urdangarinek uztailaren 13an. Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratu emandako liburuan, aurretik kaleratutako aleen bidetik, gure inguruko hainbat lanbideren berri ematen du egileak. Lanbide zerrenda horretan daude, besteak beste, zurarekin (makilak, hilkutxa-arotzak, paisaia tailagileak...), zume eta ihiarekin, musikarekin, zaharberriarekin edota buztingintzarekin lotutakoak. Era berean, erlezainen, beiragile maisuen zein tinda-tzaileen lanbideak ere presente daude.

Liburua euskaraz eta gaztelaniaz idatzita dago, eta argazki eta ilustrazio ugari biltzen ditu. Javier Carballeoren lankidetzan izan du Urdangarinek ale berri hau prestatzeko.

Donostian egin zuten aurkezpen ekitaldia. Urdangarinen liburua gain, antzinako lanbideei buruzko bideo bat ere kaleratu du Aldundiak (Artiolak koordinatu du lana). Itzal handiko saskigileak diren Azurmendi anaien lana biltzen du. Liburutegi, kultur etxe eta ikastetxetan banatu nahi dute.

### Artisautzaren garrantziaz

Oscar Usentxi Foru Aldundiko Berrikuntzako zuzendariak nabarmendu zuenez, “lan garrantzitsu bat dago egiteke: artisautzari ikusgarritasun handiagoa ematea. Alegia, gipuzkoarren artisautza balioestea”. Bere esanetan, “mundu globalizatu batean, artisautza oso garrantzitsua da zerbait ezberdina eskaintzeko, estandarretatik kanpo dagoen zerbait”. Horregatik argitaratu du Aldundiak, hain zuzen ere, Carmelo Urdangarinen “Antzinako lanbideak” sailaren 13. zenbakia.



**Abuztuak**

**14**

**Festen hasiera**

**18:00:** **Kanpai errepika** eta udaletxeko balkoitik **txupinazoa** botako dute San Roke festei hasiera emateko. Ondoren, Debako Martxaren soinuarekin **zapi gorria jantziko** zaio San Rokeri.

**Jarraian:** **Kalejira**, banda, txistulari eta Lizarrako Gaiteroekin (erraldoi eta buruhandien laguntzaz).

**19:30:** Udaltza elizara abiatuko da Alkate Soinua entzunez. Gure Kai Dantza Taldeak Erreberentzia eta Ezpata Dantza dantzatuko ditu. Ondoren, **Hilarion Eslavaren salbea** abestuko du Aitzuri Abesbatzak, Alaitz Urkiaren zuzendaritzapean.

**22:30:** **Danborrada** Ozio-Bide Elkartearen eskutik.

**00:30:** **EUTSI** taldearen azken kontzertua, karpan. Ondoren, erromeria **TRIKIZIO** taldearekin.

**Abuztuak**

**15**

**Umeen Eguna**

**09:30:** **Diana**, Banda Gaztearekin eta Lizarrako Gaiteroekin.

**10:30:** **Entzierroa**, umeentzako.

**12:00:** **Kalejira** Luzaro eskolatik. Plaza zaharrea San Roke Txiki agurtuko da bertso eta dantzekin.

**Ondoren, desfilea** plaza zaharretik zezen plazara.

**12:30:** **Jaialdia:** danborrada, herri kirolak, dantzak eta zezenak.

**13:00:** 2013ko abuztuaren 1etik aurtengo uztailaren 31ra bitarte jaiotako **haurrei zapi gorria** jarriko die alkateak udal pleno aretoan.

**14:30:** **Herri bazkaria** (karpan).

**16:00:** **Puzgarriak** plaza zaharrea (0-5 urte bitartekoentzat). **Gladiadoreak eta futbolin erraldoia** Foruen Plazan. **Zampa Arraina Jumping-a, Cars-a** (10 urtetik gorakoentzat), Simon Berasaluze plazan.

**19:30:** **Umeen pilota partidak**, Aldats pilotalekuan.

**19:30:** **Bertsio Gaua** karpan, Debako taldeen eskutik: Super Ordorika, Skaleak, Zatarrak, Extremozurdo, Very Txarrak, Tajon prieto y los kuajalotes...

**Abuztuak**

**16**

**San Roke Eguna**

**07:00:** **Diana**, Musika Bandarekin eta Lizarrako Gaiteroekin.

**08:00:** **Entzierroa**. Ondoren, enbolatuak (Arrizabalaga anaiak).

**09:30:** Gure Kai Taldekoen **Ezpata Dantza** plaza zaharrea, San Rokeren irudiaren aurrean. Jarraian, Udaltza beste herritar guztiekin batera ermitara igoko da prozesioan eta Meza Nagusia izango da. Ondoren, **Larrain Dantza** egingo da plaza zaharrea (Lizarrako Gaiteroekin eta erraldoien eta buruhandien konpartsarekin).

**12:30:** **Aureskuia** Foruen Plazan, Gure Kai Dantza Taldearen eskutik. Ondoren, **enbolatuak** (Arrizabalaga anaiak).

**13:30:** **Kalejira Eghoak** txarangarekin.

**18:00:** **Bertso saioa** karpan.

**18:00:** Umeentzako **Dantza Kasting** saioa Simon Berasaluze plazan.

**18:00:** **Zezenketa**, Tamameseko (Salamanca) Puerto de San Lorenzo eta La Ventana del Puerto ganadutegien eskutik. Ondoren, **enbolatuak** umeentzat.

Jarraian, **kalejira** banda eta Lizarrako Gaiteroekin (erraldoi eta buruhandien laguntzaz).

**20:30:** Kontzertua eta **dantzaldia adinekoentzat**, Simon Berasaluze plazan.

**23:30:** **Su artifizialak** hondartzan (Pirotecnia Zaragozaana).

**00:00:** Kontzertua, Simon Berasaluze plazan: **LA JODEDERA**.

**00:00:** Kontzertua, karpan: **ARKADA SOCIAL, ERATU, MC ONAK** eta **IHESKIDE**.





**06:30:** Kardantxuloak Kantuan. Irteera plaza zaharretik.

**10:30:** Jorrai Dantza herriko kaleetan, Gure Kai taldearen eta Kalez Kale Txistularien eskutik.

**12:00:** Bilkura Simon Berasaluze plazan: **bertsolariak** (Alaia Martin eta Beñat Gaztelumendi), Kardantxuloak Kantuan, Lizarrako Gaiteroak eta Txanbezpel.

**Ondoren, Esne Olatua** (saritutako pilotak topatu apar azpian).

**15:00:** Bazkari herrikoia karpan.

**17:30:** Kuadrillen kalejira, karpantik plazara (Kaxarranka, Gure Kai taldearen eskutik).

**18:30:** Entzierroa. Ondoren, **Kaxarranka** zezen plazan eta jarraian gazte kuadrilen arteko jokoak plazan.

**20:30:** Kontzertua, plaza zaharrear: **PATXI SAIZ, FERMIN BALENCIA** eta **DUODENO**.

**00:00:** Larrain Dantza, plaza zaharrear.

**00:30:** Kontzertua, karpan: **POTATO** taldea. Ondoren, erromeria **TXIMELETA** taldearekin.



**07:00:** Diana, Musika Bandarekin eta Lizarrako Gaiteroekin.

**08:00:** Entzierroa. Ondoren, **enbolatuak** (Arrizabalaga anaiak).

**10:00:** Artisau eta baserriko produktuen **feriaren** hasiera.

**11:00:** **Ongietorria** Kanboko ordezkariei eta dantza taldeei.

**Ondoren**, Jubilatuen elkartean udalak eskainitako **hamaiketako** hirugarren adinekoentzat. Trikitilariak arituko dira, eta bitartean arratsaldeko zezenketarako 9 sarrera bikoitz zozketatuko dira.

**11:30:** ZAZPIAK BAT **herri kirolekin**, Simon Berasaluze plazan: aizkolaria eta Iparraldeko jokoak (lasto altxatzea).

**12:30:** ZAZPIAK BAT **herri kirolekin**, plaza zaharrear (harri-jasotzaileak).

**12:30:** **Enbolatuak** (Arrizabalaga anaiak).

**13:00:** The Joselontxo's txaranga.

**13:30:** ZAZPIAK BAT **herri kirolekin**, Arakistain plazan: TRONTZA eta Iparraldeko jokoak (Ingude altxatzea). Bukatzeko, Kanboko Jeikadi dantza taldeak Agintariena dantzatuko du.

**18:00:** **Umeentzat ekitaldia**, Simon Berasaluze plazan.

**18:00:** **Zezenketa:** Tamameseko (Salamanca) Puerto de San Lorenzo eta La Ventana del Puerto ganadutegien eskutik.

**20:30:** Erraldoi eta buruhandien **Agurra** plaza zaharrear, Debako Banda eta Lizarrako Gaiteroekin.

**23:30:** San Roke festen amaierako **kalejira**.

**00:00:** San Rokeren irudiari ohiturazko **zapi gorria kenduko** zaio.

# SAN ROKE AK 2014

## Abuztuaren

## 14tik 18ra



*Aurtengo jaietako kartela  
duzue goikoa. Aritz  
Loiolarena da.*



## Agenda

## Abuztuaren 7tik 10era



-I. Surfing Deba Festa. Yako Debako Surf Eskolak eta Udalak elkarlanean antolatutako jaialdia ospatuko da. Surf, stand up paddle, skate eta slackline ikastaroak, zinea, kontzertuak... Egitarau osoa ikusteko edo informazio gehiagorako: [www.deba.net](http://www.deba.net) eta [www.debako-surfeskola.com](http://www.debako-surfeskola.com).

## Abuztuaren 14tik 18ra

-Debako San Roke jaiak. Egitaraua aldizkari honetako 16. eta 17. orrialdeetan duzue. Abuztuaren 14, 15 eta 16an autobus zerbitzu bereziak egongo dira gauean; Eibar, Elgoibar, Mendaro, Deba eta Mutriku artean, eta Itziar eta Deba artean. Ordu-tegiak ikusteko: [www.euskotren.es](http://www.euskotren.es) edo 902 543 210.

## Abuztuak 29, ostirala

-19:30. Azken ostirala. Preso eta iheslari politikoen aldeko ekitaldia, Herrira mugimenduak deituta. Foruen plazan.  
-22:00. Antzerkia (AED elkarte): "Erdaldun berrien kluba", plaza zaharrean (Iturri ondoan).

## Irailak 5, ostirala

-22:00. "Begiradak". Herriko zenbait artistek irudiak egingo dituzte nahi duten teknika erabiliz, eta beste batzuek hitzak ipiniko dizkiete irudi horiei. Plaza zaharrean (Iturri ondoan).

## Irailak 6, larunbata

-Merkatu Txikia, estalitako pasealekuan. Goizean.

## Irailak 10, asteartea

-San Nikolas jaiak Lasturren. Egitarau berezia egongo da.

## Irailak 12, ostirala

-21:30. Kontzertua: Mursego, elizatarian (Iturri ondoan).

## Irailak 13, larunbata

-Margo lehiaketa. Udalak eta Haitz Haundik antolatuta.

## Irailak 19, ostirala

-22:00. "Hitz hotsak", plaza zaharrean (Iturri ondoan).

## Irailak 26, ostirala

-22:00. Kontzertua: Jokin Lasa, plaza zaharrean (Iturri ondoan).

XXXI. UDAKO MUSIKALDIA  
SANTA MARIA ELIZAKO KLAUSTROAN

-Abuztuak 21, osteguna: Raquel Andueza (kantua), Jesús Fernández eta Secretum musika instrumentu taldea.

-Abuztuak 28, osteguna: SESA-ME laukotea.



\*Oharra: Musikaldiaren baitan antolatutako emanaldi guztiak klastroan burutuko dira. Iluntzeko 20:00etan emango zaie hasiera.

## EUSKAL JAIA 2014



## IRAILAK 27, LARUNBATA:

Egun osoko egitaraua izango da: dantzak, marmitako lehiaketa, herri bazkaria, erromeria... Urtero legez, baserritarrez jantzi eta euskal giroan murgiltzeko deia egingo zaie herritarrei. Aurten, erakusketa bat eta mahai-inguru bat ere antolatuko dira Euskal Jaiaren bueltan. Beraz, adi! Guztion laguntza eta parte-hartzea ezinbestekoa izango da eta!

## Udako ordutegia liburutegian

-Ostolaza Udal Liburutegiak udako ordutegi berezia izango du irailaren 5a arte.

\*Liburutegi orokorra: astele-

henetik ostirala bitarte, 9:00etatik 14:00etara izango da zabalik. Haur liburutegia, berriaz, 10:00etatik 13:00ak arte.

## Erakusketak

-Gonzalo Etxebarria artistaren lanak ikusteko aukera egongo da Elizako klastroan, abuztuaren 27ra arte.

-Juan Ignazio Aizpuruaren argazki erakusketa Agirre jauregiko erakusketa gelan. Abuztuaren 22tik 31a bitartean.

## ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: abuztuak 22, 23, 24.

irailak 1, 2, 3, 4, 19, 20, 21, 29, 30.

Burgoa Zuazo: abuztuak 8, 9, 10, 18, 19, 20, 21.

irailak 5, 6, 7, 15, 16, 17, 18.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

## DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: abuztuak 23 eta 30

irailak 20 eta 27

BURGOA ZUAZO: abuztuak 9 eta 16

irailak 6 eta 13

9:30 - 13:30

**urlo**  
SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

**API**  
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunitateen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo  
Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
urlo@urlosi.net

**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)




**MULTIÓPTICAS UZURI**

OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA  
TEL. 943 19 21 92

**MULTIÓPTICAS Uzuri**

**ZURE  
ENTZUMENA  
ZAINTZEN**



**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak



Mobila: 699 975 206  
Tel.-faxa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
mikeliturgintza@euskalnet.net  
www.mikeliturgintza.com

**A  
D**

**ASESORIA DEBA C.B.**

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617  
Eduarne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127  
HONDARTZA, 2 - BEHEA Fax: 943 192 482  
20820 DEBA (GIPUZKOA) ase.deba@teletel.es


**atari**

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA  
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA  
Tel: 943192263  
www.atarideba.com

**Lizaso  
Autozerbitzua**

Lersundi kalea, 21  
Tlfnoa: 943 19 27 29



**ITXAS GAIN  
Taberna  
ITXAS GAIN**

Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA

**oskarbi**



Pintxoak  
Ogitartekoak  
Plater Konbinatuak

Lersundi kalea, 9  
Tel: 943 209 489 - 018 644 014  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**IGARZA  
TABERNA**

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

**IZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak




Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

**GENOVEVA**  
Arraindegia



Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818

**ZALBURDI**



Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

English Academy  
**NORTH  
STREET  
ENGLISH**



Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba

**Bordatxo  
JATETXEA**

Zesterokua Plaza  
Tel.: 943 029 376  
Bazkariak: 13:00 / 16:00  
Afariak: 20:00 / 23:00

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak



# LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



## Abuztuan irekita

**ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA**

**ETENGABERO ORDUTEGIA**



**Astelehenetik ostiralera:**

**8:00etatik 22:00etara**

**Zapatuetan:**

**10:00etatik 14:00 etara**

Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria.  
**Lleidako Unibertsitatea eta Madrilen.**  
Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua.  
**Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.**  
Implantologia Masterreko Irakaslea.  
**Lleidako Unibertsitatea.**  
Kirurgia Masterreko Irakaslea.  
**Salamanca Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Institutioetako Irakasle gonbidatua.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Autran Institutua, Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Doktorea.**

**Eibarko Dendarien Elkarte**  
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ  
**Galdetuiguazu!**



**MUTUAK ETA ASEGUURAK**

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...  
**Galdetuiguazu!**



**IRAZABAL**  
clínica dental

**FINANTZIAZIO BEREZIA**

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com